

INGURUMENAREN ARLOKO DOKTOREGO AURREKO BEKEN 2015eko DEIALDIA, TATIANA PÉREZ DE GUZMÁN EL BUENO FUNDAZIOARENA

Beken helburua da Ingurumenarekin lotutako gaiei buruzko doktorego tesi bat egitea, inguru naturalaren ezagutzan sakontzeko eta modu integralagoan kudeatu ahal izateko.

OHAR GARRANTZITSUA:

Master ikasketak 2015eko irailean bukatu dituzten hautagaietako eskabideak aurkezteko epe berria zabaldu da. Eskabideak bidaltzeko azken eguna 2015eko irailaren 27a izango da. Interesdunek eskaera bidali beharko dute PDF artxiko bakar batean becas.ambientales@fundaciontatianapgb.org helbide elektronikora. Fundazioak ez du onartuko eskaera osatugabeak konpondu ahal izatea; eskaerok baztertu egingo dira.

Lehentasunezko ikerketa lerroak:

- a) Ingurumenaren etika.
- b) Nekazaritzak eta Abeltzaintzak ingurumenaren kontserbazioan eta zaintzan duten garrantzia.
- c) Energia aurreztea azientzarekin lan egitean eta hura elikatzean.
- d) Nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorrarekin lotutako elikagaien segurtasuna.
- e) Degradaturiko eremuak lehengoratzea.

Hautagaiak bete beharreko baldintzak:

Beka hau eskatu ahal izango dute Espainiako nazionalitatea duten pertsonak, baldin eta frogatzen badute betetzen dituztela, 2015eko uztailean, Espainiako unibertsitate bateko doktorego programa ofizial batera sartzeko eskakizunak.

OHAR GARRANTZITSUA: UPV/EHUK bertako sail edo institutu batekin bat egiteko asmoa duten hautagaien eskaerei baino ez die emango bermea.

Zuzendariek bete beharreko baldintzak:

Tesia zuzentzeko hautagaiak honako baldintza hauek bete behar dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzerako eta laguntzak irauten duen aldi osoan:

- a) Doktore titulua izatea.
- b) UPV/EHUrekin lotura mugagabea duen funtzionarioa edo lan kontratuduna izatea.
- c) 99/2011 EDk araututako UPV/EHUREN doktorego programa bateko irakasle izatea.

OHAR GARRANTZITSUA: UPV/EHUK ez die bermerik emango baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerei.

Laguntzen ezaugarriak:

12 hilabeteko 5 kontratu emango dira, eta gehienez ere 3 urtera arte luzatu ahalko dira. Bekaren bidez, urtean 23.500 euro gordin emango dira, alde batetik, bekadunari ordaintzeko eta, bestalde, harrera unibertsitateak Gizarte Segurantzaren kuotak ordain ditzan.

UPV/EHUko izapidea:

Harrera unibertsitateko arduradunaren sinadura lortzeko, eskatzaileek ["Eskaera"](#) agiria bidali beharko dute, oinarritzko datuak beteta, convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera. **2015eko irailaren 23ra arteko (asteazkena) epea izango dute horretarako. Egun horretatik aurrera, ezingo da bermatu Ikerketako errektoreordearen sinadura garaiz lortuko dela.**

Harremanetarako:

Fundazioari kontsultaren bat egiteko, deitu 91.444.33.41 telefono zenbakira edo bidali mezu elektronikoko bat becas.ambientales@fundaciontatanapgb.org helbidera.

Informazio gehiago:

<http://www.fundaciontatanapgb.org/convocatoria-de-becas-predotorales-en-medioambiente-2015/>